

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

199n. zenbakia / iraila  
1995



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**PAULIN SOLOZABAL'EN OMENALDIA MUNGIA'N  
(1995-7-1)**

**BERTSOLARIAK**

- AZPILLAGA
- LOPATEGI
- LEIRE
- AMURITZA
- MAÑUKORTA

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

L | A      B A

1 995-96 I KASTU RTEA

OGEITA TA ZORTZI GARRENA  
BIZKAIERAZ  
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

**Egunak:** ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

**Orduak:** GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

**Ordaña:** 15.000 PEZETA

**Izena emoteko-tokia:** EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKINA 423 53 22 - BILBAO

**ASIEREA:** URRILLAREN 16'EAN

28.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO  
3 NIVELES Y CONVERSACION

**Dias:** LUNES, MIERCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

**Horas:** MANANA, TARDE Y NOCHE

**Curso completo:** 15.000 PESETAS

**Inscripciones:** EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22 - BILBAO

**COMIENZO:** 16 DE OCTUBRE

LAGUNTZAILEA

COLABORA



**BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**

# UDA, BEROA BAI, BAINA EZ MOTELA

## OPORRAK-IKASTURTEA

Amaitu dira geienen udako oporrak eta eldu da berriro lanera itzultzeko ordua. Onaino teoria, baina kasu askotan egia beste bat da: batek baino geiagok nai izango leuke aukera ori euki, langabezia gaur eguneko arazorik larrienarikoa dala kontutan izanda.

Ikasturte barria astera doa. umeek zorroak liburuz bete, gurasoek boltzikoak diruz utsitu liburuok ordaintzeko, eta danok "eskolara". Politikoak, eurak ere, ikasturte politikoa astera doazela esaten dabe, naiz eta oinezko askok denpora galtzera doazela pentsatu. Onei ere ikasleei antzera nota jarri-bearra balego ikasturte-amaieran, ainbatek suspentituko leuke kurtsoa, baina ikasleei egiten jakena egin-bearrean, kurtsoa barrizatu eragin, besteok eskolatik kanpora botako gendukez. Eta egia esan aspaldion badira ainbat eta ainbat arrazoi sekulako suspensioa jartzeko etxeko eta auzoko politikoei.

xYY

## UDAKO ALBISTEAK

Kazetarien artean entzutetsuak izan dira beti "udako sugeak", au da, udan barri gitxi egoten denez eta egon badagoz ez denez kazetaririk izaten oporrak dirala eta, barririk txikiena ere aunditu egiten da izparringiak onegaz edo aregaz betetzeko. Azken batean paper-orriak saltzen dira, eta gertatu bako barriak erosi.

Oraingo uda, ostera, ez da bat ere txiroa izan barri politikotan, eta euretatik gitxi onak. GAL auzia dala eta, gauzak geroago eta korapilotsuagoak biurtu dira, batez ere PSOE alderdiarentzat, ez dalarik goi kargurik ikutu barik geratu.

Egia esateko bat bai geratu da, baina au leendik ere ikututa egoan, Alfontso Guerra.

Kontu-modura esaten denez, PSOEek zirku bat ipiniko baleu ipotxak asi egingo litzatekez, edota, txapelgintzan asiko balitz umeak buru barik jaioko litzatekez. FILESA, GAL, PSV, zein loteria ez jako jausi?

Aginteak ustelkeria dakarrela esaten da, eta orixe egiaztatzeko bidea daroa alderdi onek.

## ONDORENAK

Txarrena orren ondorioa izan leiteke, eta ez sozialistak alde

egin bearragaitik, atzetik atea joka dagoana euskaldunontzat askoz txarragoa izango danaren susmoa dagoalako baino.

Bibotedun agintarien gomutapen txarra daukagu lurralde onetan.

Ainbat urtetan jasan izan bear izan dogu Patxikinen bibotearen zapalkuntza, baina faxizta izanik ulertzekoa zan zapalkuntza. Kontuz! ulertzekoa dinot faxiztak zapaltzaileak diralako (neu nagusi edo...) baina inondik ere ez onartzekoa.

Baina orain etorri daitekena arriskugarriagoa da, etorri ere demokrazia kutzuz jantzita dator eta, auteskunde eta botoen indarrean oinarrituta, naiz eta boto orretariko askok POSOEn kontrako asarrea adierazi eta ez bere aldeko kidetasuna.

Dana dala, bere alde ona ere euki leike (alde onik aurkitzen asi ezkerio eriotzari berari ere aurkituko geunskio). Ea eragozpenak eta oztopoak aunditu eta nagusitu egiten jakuzanean, alkartu, geure arteko ezbardintasunak eta kontrako pentsakerak aaztu eta arerioari ekin egiten deusagun, danok alde bardinerantz bultzatuz eta indarrak alkartuz, ez bakoitzak bere alderantz eginaz eta indarrak saka-banatu.

## EUNGARREN URTEA: OINARRIAK

Naaste-borraste politiko onetan ere badago zorionak emon bearra. EAJ alderdiari ain zuzen ere. Arrazoia bikoitza da, alde batetik bere 100 gn. urteurrenagaitik eta beste aldetik ospakizun egun orretarako ataratako agiriagaitik.

Aurreko baten etxearen oinarriak eta ageak begiratu bear zirela esaten neban eta agiri orretan orixe egiten dala uste dot. norbaiti erakutsi zuaitzaren sustraiak eta enborra sendo dagozala, aitaren etxeak zutunik dirauala, Sabino Aranak jarritako elburuak ez dirala aaztu eta abertzaletasunaren suak biztuta jarraitzen dauala.

Asmoak eta elburuak ortxe dagoz, orain zailena edo gatxena geratzen da, BETETZEA, itsasontziak ez daiala iparra galdu eta bear dan portura eldu daitea.

Nire aldetik zorionak eta gitxienez beste 100 urte bete daiazala, baina ea orduko agirian elburuak beste batzuk diran, eta ez norabidea aldatu dalako, aurreko elburu eta asmoak bete egin diralako baino.

Enrike Itxasalde

## OARTXU BATZUK

Ogei ta zortzigarren ika *sturtearerez iragarkia* ipiñi dogu zenbaki onetan. *Ikasturtea* urrillaren 16'an asiko eta ba-daukazue astia euskeria ikasten asi gura dozuonok. Asi udeak izten dauan nagikeria kentzen, lan onetara gogotsu sartzeko.

Laster izango da gure ZER onen 200n. zenbakia. Jazoera au pozgarria da gure irakurleentzat, idazleentzat eta laguntzailleentzat. Ekin eta ekin onagiño eldu gara!

200 zenbakiak betetzen diranean, aurkibide ondo osotu bat agertu nai dogu. Orrelan egin gendun 100n. zenbakiaren ondoren be. Gure adiskide on eta zeatz bat dabil lan au egiten.

Ori dala-ta, zenbaki bat edo bi orretarako beste barik izango dira. Idazleren batzuk zuen idaz-lanak argitaratuta ikusteko itxaron-bearra izango dozue.

Eskerrik asko guztioi eta aurrera geure bidetik!

ZER

---

# ZERGAITIK EGIN NINDUEN APAIZ

---

Gerratean gaude eta kuartelean bizi naiz. Apaiz izateko mailla bat falta. Mailla orretara igoko naula, esan dit Gotzaiak. Bere itza da. Baña, orretarako aste beteko Ejerzizioak egin bearco ditut aurretik.

Aste ori beteko ba'det, baimena bear eta ementxen nago, Kapitanaren aurrean, nere eskea eskuetan dedala:

—Zer nai?

— Apaiz izateko baimena.

—Apaiz?

Irakurri du nere eskaria. Zalantzan gelditu da:

—Badegu apaiz abertzale "separatista" bat geiago.

Ni ixilik, eraso-aldiari aurpegi emateko zai. Donostia'ko eliza batean ikusi nuen, udara galdatan, Guruzbidea egiten, andrazko silla batean belaunak zituela eta abaniko bat eskuetan. Bero zegoen, bai; baña, bera da au barrika baten antzeko.

Orain urte bete agertu zan kuarteletik, naiko melar. Katalunia'tik edo etorritakoa zan. Izar bateko alfereza; orain, berriz, iru izarreko kapitana. Nolatan egin ote dute au kapitan? Emendik ez dau irten; urte osoan frentera agertu gabe eta, kapitan? Badu onek goimallako laguntzalleren bat. Majo gizendu da au tarte onetan. Sagardo-upela dirudi:

—Apaiz izan nai dezu?

—Bai. Gotzaiak esan dit ori zure esku dagoela.

—Nola, nere esku?

— Baimena ematen didazun ala ez.

Baimena emateko, politika aldetik, eragozpenak sortzen zaizkio buruan; baña, ukatzeko ere bai: Ain kristau-debotoa izan eta apaiz izateko baimenik eman ez...? Bai, baimena emango diot baña gerrate onetako frentearen aizken muturrera bidalduko det...

Au zalantzan dagoen bitartean, ni amesetan: Apaiz egiten nauenean, kapellau izango naiz eta orduan izar txo bat eramango det nere txapelean. Onera etorriko naiz, alferrez jantzita, emengo sarjento txatxu aueri, nolatan saludatu bear duten, erakusteko. Baita kabo narratx orreri ere; ez zidan ba bein esan "los galones están sobre las razones"? Nik erakutsiko diot orreri nork dituen emen galoiak!

Ara, erabaki du!

Artu du mai-gañeko papertxo bat, zirri-borroz bete du eta, ziñatu ondoren, eman dit eskura, aurpegiara begiratzeke.

Jaso det papertxo ori eta, aindik irtetean, musu bat eman eta kolkoan gorde det. Au nere poza eta zoriona! Onek ez daki zer mesede egin didan: Soldadu izateari laga eta, salto baten, lau malla gorago igon. Soldadu utsetik, kabo, sargento, brigada, alferrezeraño... Ori dek saltoa, ori!

Soldadu utsak jasotzen du zapalketa guztien kopurua: Komandanteak kapitana, kapitanak alfereza, alferrezak brigada, brigadak sargentoa, sargentoak kabo, eta, azkenik, kaboak soldadua... Zapalketa guztien oiñarrian, soldadu gizarajoa. Ez daki onek ondo zer infernutik aatera nauen... Emendik aurrera ez nauk sekulan soldadu utsa izango! Au dek poza, au!

\*\*\*

Amar egunetako baimena eman didate.

Biartik, zazpi eguneko Ejerzizioak eta gero Gazteiz'era. An Gotzaiak, bere kaperan, apaiz egingo nau. Orain illebete dala, berberak eman zidan bere itza.

Joan naiz etxera pozarren, biotza zorionez beteta. Eman diot albistea amari eta bazkaldu degu biok patxaran. Gaur geure pattak 21 egun arrautzak berotzen. Onezkero arrautzetatik ateratzen asita egongo dira eta banoa ikustera. Oraintxen ari dira mokoka arrautzak apurtu naiean, andik irtetzeko. Irte ala, or dijoaz korrika erreka aldera. Eskerrak esi bat daukagunai bitartean, bestela murgilduko ziran guztiak uretan. Zeñek erakutsi ote die nundik dagoen erreka...

Artan nagoela, etxeko atea jo du norbaitek. Irten det eta, Korreotako mutilla telegrama bat eskuetan duela:

—Frentetik dator.

— Andik ez zetorrek berri onik, mutil.

Amak sukaldetik:

— Zer berri da?

— Joxe il dala frentean.

Bat-batean negarrari ekin dio. Nere poza, putzura.

\*\*\*

Emen orain negarrez astea alperrikakoa dala eta lanean asi naiz. Erriko alkate izandako osaberengana jo det:

— Lenengo ta bat, errixka ori nun dagoen jakin bear degu.

—Billatuta daukat: Leon'eraño jo bear degu eta andik iparladera.

—Nik taxi bat aurkitzen dedan biartean, joanadi i arotzarengana il-kaja baten billa.

Nik arotzari:

—Nere neurriko bat bear det gaur bertarako. Lau olekin eginda ere naikoa da.

Erosi ditut ganadu-manta bat eta bi atxur. Ez dakigu zer beariko degun eta gorputza nun egongo dan, eta, bada-ez-bada... Osabak billatu du Tolosa'n, Teruel'etik etorritako taxia. Ara ere gorputz-billa... Deskantsu apur bat beariko du eta goizeko iruretan irtetzea erabaki degu.

Aurretik, ordea, Gotzaiari telegrama bat bialdu diot, onela esanaz: "Ejertzioak lagata, frentera noa nere anaiaren gorpua billatzera".

Lotu degu il-kaja automobillaren atzeko aldean eta bagoaz nora ziur jakin barik. Arratsaldean eldu gera errixka txiki batera eta Batalloiaren bulegoa aurkitu det etxetxo batean:

—Nere anaiaren gorputzaren billa nator.

—Illerrian dago. Soldadu onek lagunduko dizu.

Illerriko zaindaria, kabotxo bat da. Bost duro zillarrizko eman dizkiot eskura:

—Ceriñola Batallaren gorputz bat nai det.

—Emen, ezkerretara, zazpi daude; eskumatara, amaika.

—Asi eskumatik.

Seigarrena izan da. Biotza daukat kantari Jainkoari eskerrak emanez. Zein itunak diran gorputz gabeko illetak...! Semea galdu dala esan eta nun dan arrastorik sekulan ez billatzea, orixe da benetan illuna. Ez du amak jakingo nun eta noz il zitzaion semea. Ezta gorpua nun dagoen ere... Nere amak jakingo du nun egongo dan: erriko illerrian. Bera ere ara joango da egunen batean, bere semearen ondora... Ez degu ordu bete bear izan gorputza billatu eta jasotzeko... Eta, gaur neretzat, orixe izan da suerterik ederrena...

Agertu naiz Gazteiz'ko Seminarioara, aurretik eskatutako, bear nituen ageri batzuek jasotzeko asmotan:

—Ez dizkizugu prestatu.

—Jakin nezake zergaitik?

—Ba, esan dutenez, ez omen zaitue ordenatuko.

—Zergaitik ez?

—Abertzalea zeralako.

—Komeri onetan ameskeri ori besterik ez da palta!

—Ez da guk asmatutako ameskeria.

—Dana dala, atera itzatzu biar goizerako beariko dizkidan ageri oiek.

Bigaramonean, goizeko zazpiretarako an nengoen Gotzaiaren kaperan. Laguntzalleari eman dizkiot pape-  
rak.

Jantzi dut alba zuria eta estola lepotik zintzilik. An nun datorren Gotzai jauna. Aundia eta indartsua. Pelotan palaz jokutzen omen du. Zartako ederra emango dio onek pelotari...

Egin nindun apaiz.

Ameskeriak ote ziran danak? Kezka orrekin ez naiz etxera biurtuko eta aurrez-aurre onela galdetu diot laguntzalleari:

—Egia al da ez zendutela ni apaiz egiteko asmorik?

—Bai, egia da.

—Eta, zergaitik egin nauzue?

—Bialdutako telegrama gaitik.

—Eta, tartean ildakorik izan ez ba'litz?

—Ez.

Biotza erori zitzaidan oñetako orpoperaño.

ARRINDA'tar ANES



**Eusko Jaurlaritzaren**

**Laguntzaz.**

Kultur Saila k diruz lagundutako aldizkaria.

## BETI IRAKURTEN

Leengo egunean, jorraillaren 25' ean, DEIA egunerokoan irakurrita, Mari Karmen Garmendia k Bermeo'

Aitaturiko DEIA'ren idazlana, Bizkai'ko ereduari idatzita egoan, orregaitik nire arritasuna.

Izparringiko orriaren erdi-erdian argazki bat egoan eta bere azpiko aldean azalpen bat, berari buruz idatzita, auxe berau irakurten zan:

*"Mari Karmen Garmendia eta bere alboan Jon Telleria, E.A.J.'ko alkate gaia".*

Eusko Jaurlaritzako Kultura-Sailburua, Bermeo'ra ikustaldi bat egitera joatea ez da arritzekoa, baiña bai gero, argazki eta guzti, bizkaieraz idatzitako idazlana, onelako komunikabide baten aurkitzea.

Ikustaldia, Eusko Alderdi Jeltzaleak antolatuta ospatzen ei zan, eta euskeraren egoerea aztertzea zala bere asmoa batez be, azaltzen zan idazlanean.

Frankismoa amaitu eta gero, demokrazia-sasoian, Autonomia'ko Estatutoak, euskerea izkuntz ofizialtatz artzea aurrerapen aundia izan zala, baita orren ostean Eusko Lege Biltzarrean onartu eta Eusko Jaurlaritzak gauzatutako erabakiak sekulako garrantzia izan ebala; orren bidez, azken 12-14 urteotan 100.000 euskaldun geiago garala, gaiak lantzen, irakasleak prestatzen, besteak beste, eskoletan elebidun ezkuntza sartzeko aukerea izanez gain.

Araba'n be. azkenaldi onetan, euskerataz arazoak izan dirala, esan eban, baiña gaur egun euskeraren aldeko jarrera oso aundia dala, politikako gizon batzuk auxe eta bestea dala marmarka ibilli diran arren.

Orain-arte irakurritakoagaz ados gagozala esan bear; esandako guztiak egiak dira, baiña egin-bearrekoak, noski.

Bai, egia da, kanpotarrak gogoz artzen dabela gure zaletasuna, gure alegeñak euskeraren alde. Oneri buruz, ni neu be konturatu naz, adibidez Barcelona'ko adiskideakaz berbetan egonda.

Era berean, egia da, iñoiz euskeraz entzun barik, edo urteetan aitzuta, ezezagun egin arte izan dan lekue-tan, orain, beintzat entzun eta zerbait egin edo erabil-tzen asi dala gazte-talderen baten edo beste artean. Bai-ña bai auxe be egi utsa da, orain gitxirarte erabiltzen izan dan leku askotan, euskeraz egiteari bertanbera itzi jakola, edo ilzorian aurkitzen dala.

Eztabaida luzea izango litzake, batzuk eta beste bat-zuk darabilen edo erabili izan daben euskerea aster-tzea, iñork ez bai dau onelako bearlekurik iñoiz artu (edo bear izan danean).

Ona emen adibide bat, euskerea dala diñotsoen eus-kereari. Auxe da:

Itauna:

*Zergaitik gustatzen zaizu pelotea, lastana?*

Erantzuna:

*Zergaitik polita da.*

Antza ez dago, ez andereño ez irakasle dakienik, edo beintzat gauza danik esateko edo irakasteko *-Zer-gaitik-* itaunari *-Lako-* sufijoaz erantzun bear jakola.

Eta auxe bakarrik balitz...

Joskera aldatzean, nortasuna kentzen deutsoe izkuntzari, erdeldunak diñoena egia egiten: "El euskera es un dialecto del castellano".

**LARRONDO**

### IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza esku-ratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea EUSKERAZA-LEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

# EUSKERA AIALAKO LURRALDEAN

("EL MUNDO DEL PAIS VASCO", maiatzak 20, 1995)

## EUSKERATUTA

Arabian euskeraren garapenari ezarten jakozan erazgopenak dirala eta, Aiala Araneko alkateak ZARA OBE'ko agerpenaren bidez artu daberen jokoarea gogoan izanik, Aiala gure lurralde eta aranari dagokiozan xetasun batzuk ekarteari guztiz onuragarri deritxat. Eta nik, aialarra nazan ezker, pozik eta gogoz dagit eginkizun au aialar guztien izenean.

Arabian euskeraren zabalkundea galerazoteko aitatu oi diran arrazoiak onangoak dira, besteak beste: "Gaur eguneko egoerari makurtu bear gaiakozala; gure egunotan Araba erdalduna dala; Arabian zear euskera birbizteko egiten diran aalegiñak goitik beera ezarriak dirala; guzurrezko ipuiñetan bizi gareala; bai, bai, baietz, euskera ondasun baliotsu-baliotsua dala; ez dala bardin, alan be, illik dagoan ondarea eta gaur bizirik daukaguna, leen izan dana eta orain dana; leengo gure aurretikoak ez daukela oraingo bizilagunai ezer ezarteko eskubiderik, ezta galdurik dagoan berbakera batek gaurko iztunai zerbait artu-arazoteko aginterik".

Zer da, baiña, gaur dana edo gaurko izatea? Orain dana eta daukaguna au be bada: gure aurreko aialarrak euren bizitzaldian egunero-egunero euskera erabilli ebela, eta euren arteko batzuk gure egunotara arte. Eta au kondaira bizi-bizia da, ez illa. 1940-1945 urte inguruan nik euskeraz berba egin izan neban lurralde onetako azkenengo euskaldunakaz Laudioko Gardea, Lekanda, Dubiris baserrietan eta beste batzuetan, eta 1970-garren urte inguruan Baranbion bertako euskaldunak ezagutu nebazan, eta euren berba egikeratik berbetaldi luze bat artu neban "Onomástica de la Tierra de Ayala" nire libururako.

Gizaldi onen erdi aldera oraindiño, Okendo eta Larrabalago baserriarrak ez eben "zeta" oguzten "ese" baiño, eta "paser" esaten eben "pacer"-en ordez, "sapato" "zapato" esan bearrean, euren jatorrizko berbakuntza oraintsu galdu ebela argi erakutsirik. XIX-garren gizaldian zear, izan be, Laudio geien-geien berbeta euskera zan, eta mende orren berandu-beranduan euskeraz egiten ebezan otoitzak eta berbaldiak Santa Luziako santutegian, baita Baranbioko Garrastaxun be gizaldi berorren leenengo laurenean zear.

1862-garren urtean, Bonaparte printzeak auxe idazten eban: Okendojenan gaienak euskeraz egiten ebela

berba, eta Okendon, Amurrión, Lezaman karlisten gerrate arte euskeraz egiten zan, 1830-urte inguruan eta beranduago. Amaren aldetiko nire aitita Luiandon elizako berbaldiak euskeraz entzunda egoan. Eta euskeratik, gazteleraz naastuta, 450 baiño izen geiago gelditu jakuzan Amurrión eta Lezamako bazterretan, eta neuk jaso nebazan berbok 40-garren urtean.

Arabako kondairan zearreko lurraldeari dagokionez, 1930-garren urtera arte euskeraz itz egin oi zan Gorbea-azpiko lurraldean Manurga eta Muruatik Billerle-Legutiano arteraiño, Ganboa alde guztian eta Nafarroako mugan dagozan errietan, Olazagutiaren aldera.

Guzti au guretzat bizirik dagoan zerbait da, ez illik daukaguna, geugandik ber-beron eta ur-urtean ikusten dogu eta. Toki-izenetan edo toponimian argi dakusgu egia au, izenok gure aurretikoengandik etorri eta euskeraz berba egiten dauskuen ezker. Orixe jazoten da Aialako erririk geienetan, asi Ibaizabaldik edo Llantenotik Altuberaiño. Okendon eta Laudio euskerazkoak dira %85 lur-bazterren eta baserrien izenak. Aitatu dodan nire liburuan 10.773 toki-izen artu nebazan antxiñako Aiala Lurraldekoak, eta ortik 8.000-geldituko dira, gutxi gora beera, aldakiak ken badagiguz.

Eta euskera toki-izenetan bizi dala gaur-gaurko gauzea da, ez ilda dagoan leena. Orregaitik bir-eskuratu gura dogu euskera, gure lurraldeko toki-izenen edo bazterren esangurea zein dan jakiteko, zein lekutan dagozan eta zein eratakoak diran, areetako langintza abelzaintza ala artzaintza izan zan, leku baktotxean ikusten ziran landarak eta zugaitzak zeintzuk ziran, baserrien izenak, berba batez, lurraren gorabeera edo goiberak, soloak, iturriak, atxak, aldatzak, bizkarrak, aranak eta abar jakiteko.

Errialde bat osotzen dogun ustea be gaur-gaurkoa da, ez bitan zatiturik, bata erdalduna eta bestea euskalduna, daukagun errialdea, bat bakarra baiño. Zati biok egiazkoak dira, bai, baiña ez dagoz bata bestearen aurka, gure erria bat, Euskal Erria, dalako, zati biok alkar ulertzea beartuta dagoz, eta alkar-ulertze au batak bestea ezagutzetik, begirunea eta errespetoa izatetik eta onartzetik etorriko da, eta au bearrezkoagoa da bearbada alkar ondo ikusi bearreko urte onetan.

Urrengo au be egia da gure egunotan: Euskal Erri-



---

## KONDAIRA

---

koak gareanez gero, euskera zaintzea, babestea eta indartzea geure bearkizuna dala, geure-geurea dan ondasun onetan geu be kide eta partedun garalako. Gura daben arabar eta aialar guztiak eurentzako edo seme-alabentzako aurretikoen euskera bir-irabazteko eskubidea dauke. Eta auxe berau egiten da Aialan iñor eta iñork beartu barik, bestetara dala aditzen emoten dan arren, politikazko pentsakera guztien gaiñetik.

Zein da gaurko izatea? Arabako geiena erdalduna dala? Urrengo au be orain-oraingoa da, eta garrantzizkoagoa gaiñera: errialde onetako (Arabako) %75-%80 bizilagunak, eta aialarrak batez be, euren seme-alabak euskera ikasi dagien nai dabela. Euskera barriri indar-arazotea indarkeriazko ekintza dala diñoen talde orreek arabar geienak euskeraren alde dagozala zergaitik ez dabe ikusten?

Auxe da gure etorkizunerako itxaropen aundi-aundia. Eta gurari au ez da bertokoak gareanona bakarrik, erbesteko etorkiñen artean be geroago eta geiagok orixe berori nai dabe. Urte batzuk gure artean egin dabezanak, batez be, gorputz eta arima nai dabe euskal gizartea euskaldun izan daiten, bai eurentzat eta bai seme-alabentzat, etorkizun daukagun geroko erriaren berbakuntza euskera izango dalakotan.

Euskeraren ikaste au askatasun guztizkoan egiten da, ez goitik beera indarrez ezarririk, ezta bear-bearrez moral aldetik, sikologi aldetik eta politika aldetik. Gutariko bakotxak eta erriak berak orixe eskatzen dogulako, euskera barriri bizitu daiten guztiok aalegin egiten dogulako, geienok bide orixe onartzen dogulako, orixe izan da eta gure erri onen ezaugarria, eta au lurbira guztiko ikastunak eta jakitunak egiazat izan dabe.

Xeetasunok zeaztuz, 1994-1995 ikasurterako, auxe da Aiala aranean daukagun neskato-mutikoen zerrenda.

A ereduan, ikasgai bat euskeraz eta besteak gaztele-raz, kopurura auxe izan da: 847 ikasle, au da, %22,3.

B ereduan, ikasgaiak euskeraz eta gaztele-raz, 1966 ikasle, %51,9. B eredu onetan soilik dagoz Aialako ikasleak, Okendokoak eta Artziniegakoak. D ereduan, ikaskuntza guztia euskeraz, 972 ikasle, %25,6, au da, 482 Laudion eta 490 Amurrion.

Zertzelada onei AEK-ko ikasle nagusien euskalduntzeari ezarri geinkiozanak ekarri daikeguz, au da,

332 Laudion eta Amurrion, Artziniegako 7 ikasle bertan sarturik.

Aialako ume-pilloa euskera ikastearen alde dagoalako, berbakera au indartu eta zabaldu daiten be bai, lagundu eta lagundu egiten dogulako ziur gagoz, berbakuntza berau jausita eta naiko bertan beera itxita ikusten izan dogu eta. Onantxe euskerari arnasea emon eta lagun egiten gaiatorkoz. Badakigu gure euskera au Arri-Aroa ezker datorkiguna, eta inguratzen gaituen erdal-izkuntzen ondoan millaka urtetan zaarragoa dana, azkenengook orain 800 urte inguruan agertu ziran eta.

Bestalde, guztiz arro gagoz onan aialarra izan zan Jose Pablo de Ulibarri eta Galindez, Okendoko semea izan zanaren bidea geuretzat artzen dogulako. 1847-garren urtean il zan. Garai aretako idazleakaz zuzenezuzenean eta eskutitzen bidez artu-emon bero-berotan bizi izan zan. Gaiñera, euskerari beronen eskubideak biurtzearen aldekoa izan zan, eta ori bere garaian eta etorkizunerako be bai, au da, oraingo ikastolen aurrelaria. Au be berak egin eban: euskera zaintzen eta indartzen lan-da-lan egingo eban eta 24 kide izango ebazan erakunde bat sortzeko asmoa agertu eban, gaur Eskaltzaindia deitzen dogunarena. Azkenik, Gernikako Bartzarre Nagusietan Abandoko ordezkaria zanez, aurreko ekitaldiaren laburpen bat euskeraz idatzi zeitela lortu eban. Beraren atsegiñik aundiena auxe izan zan: batak besteari idatzen dautsaguzan eskutizetan, norbere eta erriko agirietan, idazki guztietan euskera erabiltea.

Gaurko aialarrak gareanok aren bideari jarraitu gura dautsagu. Euskal Erriko beste euskaldunakaz artu-emonetan bizi izan zan bera, eta geu be onantxe bizi gaitezau. Eta gurer idazle aundienetariko batek, Nikolas Ormaetxeak, Orixek, esana geuk be esan dadigun: "Geroak esan beza erri bat izan zan, edota ats emaiogun ontan irauñ dezan".

**Lana egin: Federico de Barrenengoa, euskaltzainak.  
Euskeratu: Agirregabiriak.**

---

## B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ

---



# XXI<sup>gn</sup> GIZALDIKO GIZON-MOTA

## ALDAKUNTZAK

Iñor konturatzekotan, geu konturatzen gara munduak mailla guztietan emon izan dituan aldakuntza ikaragarri buruz.

Gaur dirala amarnaka urte batzuk ikusia ta ikasia gendua-na... aurreko ainbat belaunaldiak pillotutako jakituriaren emaitza zan.

Baiña, jakintsuak diñoenez, XXI<sup>gn</sup> gizaldian sarturik gagozanok... giza-maillan ezaugarri berezi batzuen jaun eta jabe izango garala diñoskue.

Oraintxe bertan esan dodanak emoten dausku ulertzen zeozertxo idazlantxo oneri buruz. Zeiñ "disparate" esan dogu, bada? Ondo esana ote da XXI<sup>gn</sup> gizaldian sarturik gagozala... **kalendarioz XX<sup>gn</sup>ean** bizi garan une onetan?

\* < x

## ABIADA AUNDIA

Aiñ zuzen be, orixe berori da gertatu jakuna: **geroa edota etorkizuna aurreratatu jakula, bizi dogun munduaren ezaugarriarik sustraituena "abiadaren-abiada"** (= **azeleraziñoa**) **dogulako**.

Abiada onek **gauza guztiak aldatu ditu bere tokitik sasoi** **baiño leenago** eta ez da arritzekoa ikustea zelan dagozan batzuen edo geienen barruak: urduri, kezkatu, kokoloturik... burua ta biotza eziñ jasorik... orrenbesteko aldakuntza batek eskatzen ebazan patxadazko-aldirik ez dogulako izan! Bai, egia da: guk, pertsonok, baretasun-aldiak bear doguz bizitzan emoten diran egoera ezbarriñak geureganatzeko edo "pertsoneizatzeko". Eta... jakiña dogu zer gertatzen dan zaparrada aundi bategaz batera aize-bolada zakartsu baten menpean aurkitzen bagara: aterkiñak ez dabe ezertarako balio... alderdi guztietatik buztitzen ari garalako... eta aterkiña bera be irauletara jartzen jaku aizearen eragiñez! Onelako ekaitzdun giro batek... bai lorak, bai landarak eta ortuko frutuak ere goitik beera jota izten ditu; lurra bera be asko galtzen da uraren indarraren eragiñez...

s. \*

## ZIRI-MIRIAREN ANTZERA

Beste era batera gertatzen da geure-geurea dogun "zirimir" agaz.

Norbera konturatu barik... kanpoko azaletik barruko ataletaraino eltzen da, dana guztiz eta bere sasoiaren ernetzeko bearrezkoa daben laguntza emonaz! Loreen eta arnariaren gaiñean –pixkanaka-pixkanaka– sortzen doiazan ttantak... txirristada gozo baten doiaz lurrerantza iñori kalte egin barik eta dana bustiz eta freskatuz.

Itz bat dago ingelesen izkuntzan azaldu nai dogun aldakuntza-egoera au ondo ulertzen emoten dauskuna: **"shock"**. **Norberak artzen dauan ustebako tanpada ikaragarria ta kaltegarria** izango litzateke bere esanaia. Eta orixe berori gertatu jake askori **etorkizuna gaurkotzerakoan: SHOCK!**

\* . \*

## LEENGOARI BEGIRA?

**Onelako gertaera baten aurrean geienak** artzen daben jokabidea **leengora** biurtzea izaten da... leengoa bizi izan dogulako, ezagutua dogulako eta ezaguera orrek damoskun ziurtasunak baretzen eta baketzen gaitualako. Nora-ezak eta geroari begiratu "zer" galdegaia ibiltzen asten garanean... **"malo: zazpi lagun eta iru talo!"**.

Dakigunez, beintzat, aurrelariak eta ausartak, ekintzaileak eta bultzagileak, oso-osoak eta etorkizunari buruzko fedetsuak... ez dira errez aurkitzen, ez; onelako unetan be ba dakigu erderazko esaera bi artzen geure barruko egoera ulertzen emon nairik: "mas vale lo malo conocido que lo bueno por conocer". Eta poeta ospetsu aren esaera be aora ekartzen ba dakigu: "Cualquier tiempo pasado fue mejor".

Baiña ez **giza-ikuspegitik**, eta gitxiago oraindiño **fedetik, ezin dira onartu**, besteko barik eta orrela, oraiñ arte esan doguzanak.

Aalegiñ guztiak egin bear doguz borondate oneko gizonengan geure itzaropena beñ eta barriro ipinten... mundua geroago ta zabalagoa ta ederragoa egitera deituak garean konfidantza berreskuratu bearrean aurkitzen garalako.

Mundua eta mundukoak asi baiño besterik ez dogula egin geure ibilbidea ta lana konturatu bearrean gagoz... batez be "oraintxe-bertan" zabaldu dogulako etorkizunari dagokion eta asiera damotson atea.

## FEDE-IKUSPEGIA

Eta fedetik begiratu ezker, Jaungoiko Jaunak –atzokoa, gaurkoa eta betikoa danak– mundu barri ta obeago baten asmatzaileak eta sortzaileak izatera deitu gaitu munduaren asieratik: "Asi ta ugaritu zaitezte **eta dana menperatu egizue**". Munduko jaun eta errege egiñak izan gara –"Bere irudiko"– munduan jaun eta errege lez bizi gaitzean! Orra or gure betirako zeregiña!

**Bizitza bizi-bizia dan ezker...** ez jaku komeni beñ-betik eta bakarrik atzoari loturik eta begiraten gelditzea. Beti izan da onelaxe, baiña batez be bere indar berezia dau esaera onek gaurko mundu onetan: **"Gaurkotu edo il"**.

Ori bai, eta beti esan dogun lez: atzoko ta gaurko gauza onak geure biotzetan gordez... **goazen biarko, etzi ta etzidamuko ontasun eta ondasunen billa... orretarakoxe jaioko izan gara-ta! Eta sekulan aaztu barik...** "Jaungoikoagan-Jainko" izatean datzala gure azken elburua.

-----  
(Lantxo oneri dagokion bigarren artikuluan azalduko doguz geugan jaiobarria dogun XXI<sup>gn</sup> gizaldiko pertsonaiaren ezaugarri berreziak)

Kepa Agirre

# GORATZARREA

Joan dan Garagarrillaren 1'ean (Uztailaren 1'ean) SOLO-ZABAL'dar PAULIN Abade Jaunari goratzarre bat egin eutsoen Mungia'n.

Erriko jaiak (Kepa Deuna edo San Pedroak) zirala-ta antolatu eben goratzarre ori. Mungia'ko enparantzan izan zan. Orretarako bost bertsolari ospetsu bertaratu ziran eta oneixek izan be:

AZPILLAGA, LOPATEGI, AMURITZA, MAÑU-KORTA ta, euren artean, ondarrutarra dan neskatil liraiña BILBAO'tar LEIRE. Eta euren oiturea dan lez, eginbearra guztiz ondo bete eben.

Goratzarre ori egin zanean erriko enparantza osoa jendez gaiñezka aurkitzen zan, geure Paulin guztiz maitatua dalako.

Mungia'ra 1942'an eldu zan, beraz 53 urte daroaz erri eder orretan eta, ikusten dan lez, bere eginbearra ondo bai ondo bete dau, bestelan jendeak uts egingo eban onako goratzarre-ra.

Bestalde berak be barru-barruan daroa erri ori ta berak diñoan lez "GEROAGO TA GEIAGO ONARTZEN DOT MUNGIA'ren GIZATASUN eta KRISTIÑAUTASUNA".

Onegaz ikusten da bera ta erria bat eginda dagozela ta alkarren arteko maitasuna dabela.

Izatez Etxebarriatarra da ta "AXILLONDO" baserrian bere begituak zabaldu ebazan ludi ontara etorri zanean; ori



*Ekiñaldi aretan dantzari trebeak be izan ziran.*


1912'an izan zan. Baserri ori "MAX" mendiaren barrenean dago; bertakoak ez diranak "Kalamua" izenagaz ezagutzen dabe mendi ori.

Paulin'ek, berak diñoanez, bere lenengo izkuntza EUSKERA TXUKUNA izan eban eta gaiñera bizkai-usain ederrezkoaz biribildua.

Gero, bere lenengo ikasketak erriko laterri-ikastolan eta 1925'an, berberak diñoskun lez, bei ardurea ta mendiko abes-tiak itzita Durango ko Josu-lagunen ikastetxera abiatu zan abade-bidea artzeko asmoz. Ortxe ziarduan Zizeronen izkuntza ta abar ikasten. Eta urte bi geroago Artea'ra (Arteaga'ra obeto nire ustez) joan zan abade-bideari jarraituz. Abadegai ikastetxe ortan, giza-gogoia orraztu ta olerki-gintzaren ikasketetan be sartu zan. Ondoren, 1929'an Gasteiz'era abiatu zan abadegaien ikasketa nagusiak egiteko.

Azkenez, bere abadegai ikasketak amaitu ta geure guda zikiñean ibilli bearrean izan da, 1939'an abadetza artu eban. Jarraian, berberak esaten dauku, Araba'ko BASABE lur maitera abade lez bialdu eben bere Nagusiak.


Andik iru urte barru, len aitatu dogun lez, Mungia'ra eldu zan eta ordutik ona Mungiatar maiteakaz jarraitzen dau. Eta aldi naiko luze baten, erri onen auzoa dan LAUKARIZ 'en dagoan eleizatxuaren arduraduna be izan da.



*Mungia'ko udal-batzak opari lez emondak katxabea erakusten Paulin Olerkaria.*



*Paulin Olerkariari erritarrak opariak be egin eutsoezan ugari.*



*Paulin'en ikasle izandakoak euren maitasuna eta esker ona agertu eutsoen.*

Bere bizitza, abadegintzan buru-belarri sartuta izan da. Alan da guzti be astiuneak aurkitu dauz beti idaz-lanak egiteko, batez be bertso ta olerkiak. Oneixek ugari izan dira: 1960'gnetik. asita ta gaur arteiraño, amaika idaztitan batuta dagoz. Eta guztien gaiñetik aurten argitaratu dauena "ARRAITZ" izenagaz; idazti au mardula benetan, 354 orrialdez osotuta dogu. Emen olerkiak bakarrik aurkitzen dira ta guztiak, batzuk zein besteak, ederrak eta askotariko gaieta-koak.

Azken idazti ori mamin sakonekoa dala bere olerki guztietan nabaritu oi da ta, naiz eta balio andikoa izan, *duan* zabaldu eban Mungia'ko enparantzan, artu gura izan eben guztien artean. Or ikusten da Paulin'en biotz zabala ta pare-bakoa.

Idazti orren olerki danetan ikusten da bere maitasunik aundienak Jainkoa, Aberria, Izadia, batez ere bere jaioterrian dagoan "MAXA" mendia dirala. Eta danetan be ere izaerea, lenengo ta bein (Abadea dan ezker) Jainko-zaletasuna, bakea ta gizon ontasuna, bere barruan daroazanak.

Orrez gain eleizkizun askotan bere bertsoak abestu dauz eta bardin Euskerazaleak edo ta Euskerazaintzakoak atondu dabezan itzaldi ta jaialdi guztietan. Bardin egin dau urteroko "EUSKAL ASTEA" guztietan eta egun bakoitzan erabiliko zan gaiari buruz bidea artuta.

Ikusten dan lez abadegintzaz eta bertso ta olerkiakaz bere bizitza ondo bai ondo betetu dau.

Orrek, benetan geure Paulin zorionsua dala erakusten dau.

Onegaitik, Paulin, biotz-biotzez benetako ZORIONA opa dautzugu ezagutzen zaitugunok.

Alan da guzti be, PAULIN, ez zaitez geratu egin dozunakaz, oindiño olerki-asmalari zara-ta, Jainkoaren laguntasunaz, sasoi onean zagoz bide orreri jarraitzeko.

Eta beste barik, agur bero batz, lerrotxu oneik amaitzen dauz adizkide dozun.

**Egileor'gar Jon'ek**

*Bertsolarien aurkezle izan zan Bernar Mandaluniz. Argazkiaren ezkerrean zutirik, eta jesarleketan Paulin omendua eta Euskerazaintzako bere lagunak, Gipuzkoa'tik etorriak eta Bizkaikoak.*



---

## EUSKALDUNAK ETA FUEROAK (IV)

---

### LAUGARREN ATZALBURUA

#### Iri-berrien sorrera...

**Santiago-bidean...** Erri bati bere sorreran, errege batek ematen zizkion doai, mesede, eskubideak osatzen dute Fuero-Berezi an... (Fuero-privilegio)... Eta auxe izaten zan errege orrek doai, mesede, eskubide oiekin lortu nai izaten zuan gauza bakarra: erri artara biztanle berriak erakartzea... Kako-antzeko zerbait zan, bada, Fuero-berezi ori erregearentzat... Santxo-Ramirez, Naparroa'ko erregea, izan zan aintzindari orretan.

1090-urtean erabaki zuan gaztelu bat eta errixka bat jasotzea Lizarra izeneko lurraldean (Estella), andik igarotzen bait-zan Santiago'rako bidea, eta asko-ta-asko izaten ziran bertan erromes ibiltzen ziran atzerritarrak: frankoak geienbat... Eta auek erri berrira, bizitzera, erakartzearen eman zion erriari Fuero-Berezia (Fuero-privilegio).

Leen ere, orrelako-zerbait egiña zan Jaka'n, frankoak bertara erakartzearen. Eta orduan izan zuan arrakastak, bultzatu zuan bigarren ontara.

**Lizarra... (Estella)...** Santxo-Ramirez ek Lizarra'n egindakoren-antzeko bat egin zuan ere VI-Alfonso k, Castilla ko erregeak Logroño n 1095-urtean. Atzerritarrei atek iriki azken batean.

Lizarra'ra etorri ziran frankoak bereala konturatu ziran, bertako auzoak beaizentzat egiñak zirala berezeki... Eta ez zeukala an, beste inork zergatik sartu.

Naparrak ez zuten ontzat ematen erregearen jokabide au. Bazartuak ikusten zituzten euren buruak. Azken batean ordea, eta nekez ba'da ere. lortu zuten auek ere San Juan auzoa beaintzako.

Baiñan Santiago-bideak, bertan zuten Fuero-bereziak eta uriko atek zabal-zabal zabalik egoteak enda askotako atzerritarrak bildu zituan Lizarra'k. Eta 100-urte geroago ere, antxe zeuden Lizarra'n lurralde askotako atzerritarrak, bakoitza bere auzoaren jabe.

**Naparrak aizatu eta atzerritarrak ekarri.** 1110-urterako egia biurtu zan Lacarra'k jasotako esaldi au: "Omnes Navarros expuli: in eorum loco introduxi Francos". Naparrak kanpora, eta atzerritarrak etxera...

Izan ere. Santxo-Ramirez en jokabide onek frankoak egin zituan Naparroa'ren nagusi, eta atzerritar biurtu

zituan, Naparroa'n naparrak. Eta Naparroa'ko Erregearen jokabide au izan zan noski, Gipuzkoa Naparroa'-gandik aldentzeko arrazoirik nagusia. Lotsagarria izan bait-zan naparrak, Iruña bertan, frankoen-aurka egin bear izan zuten burruka gogor ura (Navarrería).

Eta Lizarra n gertatua, ura-bera ari zan gertatzen sortzen ziran iri guztietan: naparra zala beti, baztarrean uzten zutena.

Iruña zuten orduan gipuzkoarrak beren iri-buru. Eta arutz joan-bearra izaten zuten bakoitzean, orrelakoxe gauzak ikusi-bear izaten zituzten, eta ezin onartu zuten naparren aurkako beren erregearen jokabide au. Eta azken-batean, "zirt-eta zart" au esan bear izan zioten: emendik aurrera zu ortik eta gu emendik ibilliko gera.

**Protardo abata.** Frankoen, Euskal-erri rako eten-gabeko etorrera ortan, Protardo abateak ere izan zuan bere errua. VII-Gregorio Aita-Santuaren lagun-miña zan au... Eta bere eskuan utzi zuan Aita-Santuak elizlegearen ardura bai Naparroa'n eta baita Aragoi'en ere. Eta au izan zan, Frantzi-egoaldeko jendeari, emengo atek idegi zizkien abata 1098-urtean. Ordukoa bait-da bizi-bizirik gordetzen zan agindu au: "pobladores quier sean de Francia, quier de España o de cualquiera nacion vivian el fuero de Francos en buena fee".

**Jaka'ko fueroa.** Jaka'ko Fueroa izan zan, Lizarra'ri (Estella) eman zitzaion Fueroa ere, naiz-eta aldeketari txiki bat edo beste bertan egiña izan.

Au orrela izanik, ez da arritzekoa Lizarra n bizi ziren frankoak, Jaka'ra argi-billa joatea, Fuero-kontuan eztabaidaren bat sortzen zanean. Beste-ainbeste egiten zuan Iruña ko jendeak ere. Eta jokabide berdiña izango zuan geroago Donosti'ko eta Ondarrabi'ko jendeak. Jaka'n emandako Fueroa jaso bait-zuten auek-danak, naiz-eta gipuzkoarrak Logroño'n emandako Fueroaren-bidez jaso. Onela bait-dio XI-Alfonso'k, 1347-urtean. Zumaia eraikitzekeo agirian: "hayan los que en ella poblaren el Fuero de San Sebastián, así como los de San Sebastián han el Fuero de JACA".

Naparroa'ren barne, Santiago'ra zijoan bidean, jaso zituzten atzerritarrak (frankoak geientsuenak) bere auzoak. Eta auek izan ziran ere, bide ortan zebiltzan guztiei (erromesak izan ala ez) bear zuten guztia saltzen zieten merkatariak... Eta orrela jasoak ditugu: Sangosa, Monreal, Pamplona, Puente la Reina, Lizarra (Estella).

Eta naparrak, zer?

**Frankoak eta Naparrak.** Eraman-ezinezkoa zan egoera au naparrentzat, eta laister asi ziran, asi ere, bi-auen arteko burrukak.

Izan ere, "erri berrien Fuero onek" frankoen-menpeko bezela egin zituan naparrak. Eta orrela bizi-izan ziran bi gizaldi inguru. Eta bein burrukari ekin ziotenean, benetan ekin zioten naparrak, ordura-arteko burruka guztiak txiki biurtzeraño.

Izan ere, frankoak ziran, Naparroa'n, eskubide guttien jabe: Fuero osoaren jabe. Eta bizi ere, Fueroak babestutako auzoetan bizi ziran. Eta berats bizi ere.

Naparrak, alderantziz, beartsu bizi ziran eta atzerri-tar, beren aberrian. E zuten zer-saldurik, Iruña-zear, Santiago'ra zijoazen erromesei. Biderako ezin-besteko diran "ogia eta ardoa" erre, frankoen eskuetan bakarrik zeuden salgai.

Auek-danak, naparren biotza sutu eta lertu egin zuten azken batean, eta burrukara jo zuten, bidegabe-keri auek baztertu, eta zuzentasuna ezarri-naiean Naparroa n.

Oker irten zitzaieen ordea, beren asko auek, eta NAVARRERIA izeneko beren auzoa auts-biurturik ikusi bear izan zuten. 1276 urtea zan.

Azalpen au egiten digu gai onetaz Gonzalo Martinez'ek: "Cuando Alfonso VI de Castilla inicia en Logroño que su su primo Sancho Ramírez había ensayado en Navarra y Aragón, va más lejos que éste. Los privilegios, en Logroño, se conceden a todos sus moradores, tanto francos como hispanos, sin distinción de etnia ni de origen".

**Iruña...? Pamplona...?** Iru ziran, dakigunez, gaurko Pamplona au, leen osatzen zuten auzoak. Eta batzuen iritziz, ortik datorkio gaurko Pamplona oni, ainzuzen, Iruña izena: Pamplona'ren izen jatorra: Pamplona'ren jatorrizko izena.

Eta onela azaltzen digu Arturo Campion'ek auzi au: "En la Edad Media, Iruña designó principalmente a la Navarrería o lo que el igual, Napar-Erria, pueblo de navarros (ciudad) y el nombre románico de Pamplona (villa) a los distintos barrios que se le habían ido agregando".

Iruka da beraz, gaurko Pamplona ren jatorrizko izena.

**Beste auzoak.** Ezin esan dezakegu, zeatz-meatz, noiz sortuak diran orintxe aipatu ditugun auzo oiek. Ziur dakigun gauza-bakarra auxe da: 1213-urtean iru errixka edo auzo auek osatzen zutela Pamplona: Navarreria auzoak, San Nicolás auzoak eta San Saturnino (San Cernin) auzoak.

Azkena aipatu degun auzo onetako San Cernen lautasunean eraiki zuan, ain-zuzen, Batallador deituriko alfonso erregeak frankoentzat errixka bat. Eta Jaka'n emandako Fueroaren jabe egin zituan bertako biztanleak.

Cahors'tik etorri ziran franko auek. Eta jatorrak izan ziran, ikusten danez, bi erri auen arteko arremanak beti-ere. Cahors-inguruan jaso bai izan zituzten euskal ola-gizon batzuek beren burni-olak. Cahors'en izan bait-zan, beroko batean, irakasle Xabier-sendiko Navarra maixua. Eta gaur-egun ere, bertako Kale Nagusian dagoan dendarik aundienak izen au darama: NAVARRRO.

**Fuero berezi batzuek...** Leen ikusi degunez, erri-berrien sorreratan, Fuero "berezi" batzuek (municipales) eman oi zituzten erregeak. Eta oso-bitxiak izaten ziran auetako asko. Santxo Ramirez'ek, esate baterako, aske egiten ditu Ujue'ko biztanleak. Eta 1000-garren urtean emandako Lizarra'ko Fueroak au esaten digu: etxeko nagusiak, bere etxera izkutuka sartu dan bat ilko ba'lu, ez dedilla nagusi ori iltzaille bezela epaitua izan. Eta 1102-garren urtean Pedro Sanchez'ek Kaparroso eta Santa Cara'ri emandako agirietan beste bitxikeri au esaten digu: tolesgabeak eta askeak dirala bertako biztanleak. Eta auen etxeren-batera gaizkille bat sartu, eta "ogia eta ardoa" oatuko ba'litu, bi alako ordaindu bearko ditu.

**Oliva'ko santutegia.** "Jakintsua" deituriko Santxo'k Fuero "berezi" au eman zion Oliva'ko santutegiari (1150-1194). Eta bertan esaten dan bezela: 1000 lansari ordaindu-bearrean izango zala, santutegiko etxe edo bordetara zerbait-lapurtzeko asmoz, sartuko litza-ken odonor. Laguardia'ko Fueroa ere, errege onek-berak eman zuan l 165-urtean... Eta bertan dionez: "maten al merino o al sayón que, a la fuerza, invade la casa de los pobladores y pague como impuesto 3 meillos". "Meallo" au zan Naparroa'ko diru txikiena. Eta gauza berbera diote-ia Los Arcos'ko Fueroak (1176): Bernedo'ko Fueroak eta Antoñana'ko Fueroak erre. Eta oraintxe eaipatu-berri degun Fuero au-bera (1165) eman zion "Sendoa" deituriko Santxo'k buruda'ri ere (1208). Eta an-artean ez zan oraindik agertu Inglaterra'ko "Magna Charta Libertatum". 1215-an agertu zan au.

DONATO ARRINDA  
ANASTASIO ALBISU

## IBILLALDIA - 95

1995gn. Ekainillak 12

Pozgarria benetan euskeraren alde orrelako gizatalde luzea, neska-mutil eta sosoiko andre-gizonak ikustea. Orrelakotan biotza zabal-zabalik sumatzen du batek, pozez beterik, euskeraren berpiztea ikustean.

Ene Ama laztana! Zer litzateke orrelako jendetza guztia danok euskeraz mintzaturik ikusi eta entzutea!

Gure Amagarbi eta zartxoa gazteturik, indarrez sendoturik, gure Aberriaren askatasun eguzkia gertu, bertan ikusirik.

Ez legoke orduan etsaien beldurrik, bañan... ori ikusteko, beste jokaera sendo eta eskeintza biziagoa egin bearrean gara.

Bearbada ez zerate danok neure gogoetekin ados egongo, baina nere burutapena agertu nai nuke.

Ikastolagaitik al degun guzia egin bearrean gera, batez ere guraso, irakasle eta andereño.

Gure izkuntza garaille atera nai badegu, ez dezute zuen egin-bearra, euskera irakatsiaz amaituko.

Seme-alaba eta ikasleei, gure izkuntzari bear diogun esker ona eta maitasuna irakatsi bear zaie, berari esker, oraindik, Erri bezela bizirik irauten degulako.

Ori irakasten ez badiegu, ez degu lortko gure buruaren jabetza edo iraupena Erri bezela.

† < x

Ez nuke nai iñor mindu, ez naigabetu, bañan gogoan ditut, gure Ama zanak, bi semeoi beti erderaz entzunik (ikastetxean erderaz ikasiak izanik), bein, zearo aserreturik

esan ziguna: "Gero, Abertzaleak zeratela esango dezute. Kaka zarra besterik ez zerate".

Mingarriak izan ziran guretzat itz aiek, bañan gure lozorro ustel artatik esnatzeko gai izan ziran.

Ez naiz arritzen, orain Santurtzin izan dan ibillaldial, euskera gutxi entzuteaz zorigaiztoz, erri euskaldunetako ikastolatan dabilzan gazteek, euskera baiño askoz geiago darabile gaztelera euren arremanetan, eta danak makekoak diran galdetu ezkerok, deadarka diño: Ez, gu euskaldunak gara.

Ez nieke fure Amak esandakoak esan nai.

Baña zoritxarrez, ez dira gaztetxoak bakarrik orrela mintzaten diranak, gazte elduak eta euskotar alderdi abertzale guzietan bizi bizirik diarduenak ere badira.

Non dago orduan gure izkuntzarentzat maitasuna?, lotsatu bear genduke jokaera orretan jarraitzeaz.

Badakit, beste asko, jatoriki zabilzateela euskera erabilliz, zuentzat, nere zorionik beroena.

Ea ba danok zuzpurturik, zar ta gazte, ekintza bizian ekiten diegun. Gure Erriaren etorkizuna gaztedian degu, bañan guraso eta irakasleek gazteei bide zuzena irakasten lan andia daukagu.

Agur anaikor bana guziori.

(Gaur goizean Donostiko Erri Irrati-tik ezanak Euskera-zaintza eta Euskerazaleak Biontzat dijoa orri auxe. Ongi izan).

Artolozabal'tar Clari

## ONDO MEREZITAKO GORATZARREA

Bagilla'ren 21'ganean, Bizkai'ko Aldunetxean, Goñi'tar Karmeke Andreak, Aldundiak eskiñitako, Andres Mañarikua saria artu dau.

Andra au, Eusko Arkeologiko, Abendako. eta Edestiko, Erakustegiko zuzendaria da. Goratzarre onetan, bizkai'ko Aldundiak saritu gura izan dau, Goñi'tar Karmeke Andreak gure erriaren alde egiñiko lan andia, eusko janzkiak, oiturak, eta erakusgaiak biltzen, lerrokatzen, eta erakusten.

Mañarikua sariak, Bizkai'ko kulturaren alde egindako erakunde edo gizakien lan garrantzitsuak saritzen ditu. Orain arte, oneitariko lau sari banandu dira, sortu zanetik ona.

Karmeke, Tolosa'ko alaba da, eta urteetan zear. Aranzadi erakunde lan egin eban. Gure kulturaren alor batzuk sakon eta zeatz arakatu ditu. Ara, janzkiak, eungintza, otza-

ragintza, eta buzingintza. Euskere maite-maite dau. Resurrección Maria de Azkue guda-osteko Bilbao'n izandako lenengo ikastolaren sortzailetako bat izan da. Eusko Ikaskuntza'ren bazkidea da, baita "Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pafs"ena be.

1979 arte, Eusko Erakustegi'ko batzordekide izendatu eban. Gero, erakunde orren lendakaria, eta noizbait, 1988'tik zuzendaritzat diardu.

Baña guretzat, sari-emote orren poza bikotxa da, Karmeke "Euskerazaleak" erakundeko bazkide dogulako, eta ori, neurri baten, guri egiñiko goratzarretzat artzen dogu.

Karmeke: zuk ondo irabazitako goratzarre orrez gaiñera, artu gure ederrespen betea.

IÑAKI

# NASTE-BORRASTE

## LARRI-UNEAN

Aspaldi ontan, alderdi arteko oi eta bidezko diran ezbardintasan eta gora-berak, samindu ta larritu dirala gauza nabarmena dala ezin geinke ukatu.

Ainbeste ustelkeri ta eten gabeko sortzen diran arazo gorri ta illunak eraginda-edo, itzalezko lari-une baten, bete betean murgilduta aurkintzen gara.

Ain ozpenduta dagon giroan, giza-arremanak be iñoiz baiño salatari ta mingarri agertzen dira, ta danok ari dira bata besteari errua leporatzeko alegiñak egiten.

## GURE ARAZOAK?

Danborenea jaunak egindako azalpenen ondoren, **GAL'en auziko X-a** dalako ori dala-ta, or dabiltz politikari guztiok ize-nak adierazten, leloa nori ezarri jakin ezean.

Izan be, oraingo arazoak, zuzenki beintzat, ez dabe zer ikusirik gure abertzaleatasunarekin; baiña laterrira lotuta gagozan ezkerro ta, nai-ta-ez, nastuta izanik, ondorenak jasan bearrean gagoz.

Laterriko alderdi-politiko bi aundienak, or dabiltz burruka gorri baten ekiñalean: PSOE eta PP. Lenengoak jaurlaritzara eutsi eziñik eta bigarrenak egoera politikoa eramangaitz dala-ta, uzte edo dimizioa ezkatzen; jakiña, berari bidea azke lagatzeko.

## NORABIDERIK EZ

Euren eztabaidetan ez da iñoiz Euskadi'ren auzia aipatzen, baiña GAL-ETA gaia sendoki ta garrantziz bein sortu ezkerro, ba-dirudi gogoan artu bear leukiela, erabakitzeke asmoz: Tutik ere ez! Agian, irlandar eta israeldar errietan jazoten dana, ez dira gauza gogoratzeko.

Salantza barik, PSOE'ri berak egiñiko uts eta ondoamendiak ekarri dautsoe gaurko makalaldia ta larritasuna; eta PP'ren sari-garri edo merezimentu aundienak Madridero Jaurlaritzara eltzeko, PSOE'k sortu-erazi dauzan ustelkeri ta utsegiteak berberak dira. Egiazki, orain arte, Aznar jaunak ez dau burudun eta guntsezko egitarau bat aurkeztu, zirt edo zart egin eta krisi-aldia gaizkatzeko.

Guda gorri au bizirik dagon artean. Euskal-Erri'ren arazo bereziak iñoiz baiño bastertuagoak lagatzeko, alderdi politiko espaiñarrak ahadagune egokia dabelakoan nago.

Esate baterako, zer jazoten da Gernika'ko Araudi edo Estatuaren ondiño eskuz aldatu barik dagozan 45 eskubide diralata?

Aitatutako eskubide orreik, orain amabost urte, bete-betean, onartu zan garrantzizko lege baten barruan dagoz. Legeak betetzeko egiten diran ezkerro, ba-dirudi ainbeste urte igaro ta gero beteta izan bear litzakela; baiña bai zera!

Sarritan izan dira ekiñaldi batzuk zeozer lortzeko. Oraintsu be Joan Lerma, Narcis Serra eta Saavedra jaunakin Madrid'eko Jaurlaritzaren ordezkariak izanik, iru bider batu dira gure ordezkariak, baiña dana alperrik.

## ARAUDIA BETE BARIK

Izketak gogo onezko itxuraz asi arren, une ta zio bear-bearezkoak agertzen ez diran bitartean, nola edo ala gaia, epe gabe luzatuko da. Azkenean legea betetzea baiño, truk egitea dala esan geinke.

Oraingoan be ber-bera gertatu da, ta gaia beintzat datorren iraila arte atzeratuta itzi dabe.

Laterriko Jaurlaritzara lortzeko burruka au amaitutakoan, aurka PP izango da PSOE'ren ordezkari gure solaskidea Euskadi'ren arazoak eztabaidatzeko.

Bearbada, norbaitek uste al izango dau PP arerio txarragoa dala. Nere ustez biok antzekoak diralakoan nago. Izan leiteke antziñako oitura txarren bat gelditzea, baiña garaiak aldatu egiten dira ta noiz nola jokatu bear da.

Gure burruka azken batez, eusko abertzaleatasuna ta espaiñar abertzaleatasuna, bata bestien aurka datza, ta ontan espaiñarrak naiz eskuma, naiz eskerra edo erdikoa izan, biotz eta ago batez gure aurka doguz beti.

Zeozer ba'dago mota guztietako espaiñar taldei, len-baizen-len, obeto eta alkartasun aundiagaz batu eragiten dautsenak, eusko abertzaleatasuna da.

## BETI AURKA

Gai oneri buruz naiko oar-ikaspen edo esperientziagaz esan geinkena, aukera sortzen dan bakoitzean arerioak gertu dagozala aurka gogor egiteko.

Ondiño aldi asko ez dala, Ordoñez jauna Donosti'an sastakatu izan zan. Iñork gaiztakeria deitoratu ta gaitzetsi egin ba'eban, EAJ'k izan zan.

Espaiña'n, batez bere Madrid'en dagozan egunkari garrantzienak asi ziran, asarrer bizian, euskotar edo euskeraren usain eta susmo euki leikiezan gauza guztien aurka.

Gaiztakeriaren atxakiz, txakurrenak esan ebezan. Ez zan geratu ezer eta iñor aitatu barik: Ikastolak, batzokiak... baita Arzalluz jauna eta Setien Donosti'ko Gotaiña jauna, bere abadekin... danak ziran erredunak.

Zelan izan leiteken ori? Ba bakoitzak barruan daukana, aukera egokia sortzen danian, atara egiten daualako eta kitu.

Aspaldi ontan, Euskadi'ko PSE-EE'ren burua dan Jauregi jauna, apal eta keskati agertzen da. Bera dogu **posnacionalismo** itzaren asmatzalea. Guk EAJ'ren mendeurrena ospatzen dogun artean, berari Naste-Borraste ontan... **post-socialismoa** elduko ete jeko?

IDIGORAS'tar **JOSEBA ANDER**



# BIZKAIKO FORUA ETA ERRAKUNTZAK

Bai, okerrak eta errakuntzak irakurri dodaz ZER aldizkariaren azkenengo zenbakian. (Ikus ZER, uztaila-dagonilla, 1995, 1 orr.). Okerrak eta errakuntzak Bizkaiko Forua dala eta. Utsegiteok bir-aitatuz berbaz-berba dakardaz orri one-tara, irakurleen jakingarri.

"Idatzitako Fueroa... 1452-garren urtean, Idoibalzagan ospatu zuten bizkaitarrak beren Batzar Nagusia, eta erabaki garrantzitsu au artu zuten bertan: Bizkai'ko Fueroa idatzi-eraziko zuan Batzorde bat eratzea... An-artean ez bait-zegon idatzita Bizkai'ko Fueroa... Eta 1527-ko Garagarrillaren 7'an onartu zuan I-Carlos'ek Valladolid'en aurkeztu zioten Fuero au, leen IV-Carlos'ek, "Católica" deituriko Isabel'ek, Fernando Erregeak eta Juana erregiñak onartu zuten bezelaxe... Idatzitako Bizkai'ko Fuero au, bada, XV-XVI gizaldi bitartean azaldu zan...".

Txatal labur onetan iru utsegite itzel gutxienez datoz Bizkaiko Foruari buruz Kondairaren aldetik.

**BAT:** Bizkaiko Forua BEIN baiño ez zala idatzi aditzen emoten dau. Eta au ez da egia. Bizkaiko Forua, zeozer ikasi dauanak ondo dakianez, BI BIDER izan zan idatzia leenmendeetan. **Leenengo:** 1452-garren urtean, eta Foru-bilduma oni FORU ZAARRA deritxo. **Bigarrena:** 1526-garren urtean, eta bilduma onek FORU BARRIA edo BARRIZTATUA daroa izentzat. Bizkaiko Forua BEIN besterik ez zala idatzi jendaurrean iragartea okerkuntza aundia da zalantzarik baga. Ori idatzi dauanak (edo dabenak) ez daki, antza, 1526-garren urtean Bizkaiko Foruaren bilduma barria egin zanik. Osterantzean ez leukean idatziko idatzi ebanik.

**BI:** 1527-garren urtean I Carlosek, Bizkaiko Jaun zalako, onartu eban Foru-bilduma **EZ ZAN IZAN** 1452-garen urtean idatzirikoa, au da, FORU ZAARRA eritxana, 1526-garren urtean osoturiko Foru-bilduma, edo FORU BARRIA baiño. Bizkaiko Foruaren kondaira dala eta, errakintza nabarmena da I Carlosek FORU ZAARRA edo 1452-garrenekoa onartu ebala argitara ekarte.

IRU: "Idatzitako Bizkai'ko Fueroa, bada, XV-XVI gizaldi bitartean azaldu zan" ez da egia osoa. Foru biai. ZAA-RRARI eta BARRIARI bagagokiez. ontzat artu daitekela esango neuke, baiña jakin beite FORU ZAARRA XV-garren gizaldian biribildu ebena, FORU BARRIA edo BARRIZTATUA, ostera, XVI-garren gizaldikoa dalarik.

Bizkaiko Forua dala eta, nik itzaldi bat egin neban BIZKAIERAREN ASTE barruan, 1985-garren urtean. eta gero berbaldi a ZER aldizkari beronetan agertu zan (Ikus ZER, 87n. zenbakia, bagilla, 1985).

Aitatu dodazan utsak eta okerrak gogoan artu badagiguz, orain amar urte itzaldi aretan agertu nebazan jakingarriak ez dabe gaurkotasunik bape galdu. Au dala eta, Bizkaiko Foruari buruz irakurleek Kondairaren arloan jakite ziurragoa

eta zeatzagoa izan dagian, berbaldi aretatik zati batzuk ZER onen orrietara bir-ekartea guztiz onuragarri dala dirudit.

## BIZKAIKO FORUA NOIZKOA ETA DA?

Forua idatzitako legetzat artu badagigu, noizkoa dan badakigu: 1452 eta 1526-garrenean egiña.

Baiña Foruaren sortzezko esangura zeatzari bagagokioz, au da, idatzi aurretik urtetan eta urtetan Bizkaiko erriak gorde ete bete ebazan usuario eta oiturak kontuan artzen badoguz, batek badaki Bizkaiko Forua noizkoa dan. Bizkaiko Forua noizkoa dan itandutea, Foru orri sorrera emon eutsan Bizkaiko erria noizkoa ete dan itandutea beste da.

Au da: Bizkaiko Forua edo Foru orri sorrera emon eutsoen usuario eta oiturak, euren mamiñean, eta jatorrizko izatean Kondaira-aurrekoak izan daitekezela diño José Lasa Apalategi jaunak bere "Gernika, cuna de la democracia vasca" deritxan liburua.

Bizkaiko Forua antxiñako gure asabakandik datorkigun ondarerik arrigarriena eta baliotsuena dala diño batzuk. Euskera bera baiño beinago ez ete dan dirausku José Lasa Apalategi aitaturiko idazleak.

## FORU ZAARRA

1452-garreneko bagillaren bigarrenean, Pedro Gonzalez de Santo Domingo Korrejidore zala, Gernikako Andra Mari elizan, Foru-Alkateak eta beste Aldun batzuk eskari auxe egin eutsen Korrejidoreari: Bizkaiko usuario eta oiturak idatzi barik egozan ezker, idatziz ezarte guztiz mesedegarri izango litzatekela, idatziz ipiñi barik egozalako, erriari kalteak eta kalteak etorkiozala eta. Eta Korrejidorearen aurrean gizon batzuk izendatu ebazan, Bizkaiak zituan usuario eta oiturak idatziz ezarri egiezan.

Foru edo lege-bilduma au Gernikan aurkeztu zan 1452-garreneko garagarrillaren 21-garrenean.

Auxe da leenengo Bizkaiko Forua, edo FORU ZAARRA deritxana.

FORU ZAAR au lau Erregek, zin egiñez, onartu eben:

- 1452-garrenean IV Endrikek.
- 1473-garrenean Isabelek (artetan Erregeingai zala).
- 1474-garrenean Fernando Katolikuak.
- 1515-garrenean Doña Juanak.

## FORU BARRIA edo BARRIZTATUA

Irurogei eta amalau urte igaro ondoren —gizaldiaren lau zatititik iru— Foru Zaarra erabarritu bearra etorri zan.

Au guztiz gogoangarri da guretzat.

Batzuk uste dabenez, Forua ezer aldatu barik gorde edo jagon bear da, aldiaren joana eta gizartearen izan diran aldakuntzak kontutan artu barik. Ez, ori ezin leiteke izan.

1526-garreneko jorraillaren bostgarrenean Gernikako Zugatzaren pean egindako Batzarre Nagusiank, Pedro Giron de Loaisa Jaureriko Korrejidore zala, eta berrogei eta amazortzi elizateetako alduak eta zergazaiñak (zergazaiña: fiel, cargo) bertan zirala, Foru Zaarra barriztatu egin bear zala ebatzi eben. Erabagi au zer zala eta artu eben, Foru-liburuak berak dakar asierako sarrera luze aretan:

"Bizkaiko Jaureriko Forua antxiña idatzia, eta ez bake-rik, ez Zuzentasunik, ez Letrau ugaririk ez zan aldian.. eratu izan zala esan eben. Ori dala eta, gaur bear ez dan ainbat gauza idatzi zan Foruan; beste batzuk, oster, denporak aldatu egin diranez, eta ikusien gaiñera dakigunez, alperreko egin dira: beste batzuk, barriz, erriaren bakebiderako eta nasaibiderako bearrezkoak diranak eta usarioz eta oituraz bete izan diranak ezarri barik dagoz bertan" (Bizkaiko Forua, 8 orr.).

Foru Zaarraren lege batzuk alperreko egin ziran, beraz. Eta Foruan agertzen ez ziran usuario eta oiturak lege-indarra izatea erriarentzat guztiz onugarrari izan. Orretaralo lege-bilduma barriztatu egin bear. Barriztate au erriak bere ordezkarien bitartez egingo eban.

Foru Zaarra "antxiña" idatzia izan zala diño Batzarre aretako erabagiak. Antxiña? Irurogei eta amalau urte baiño ez. Ez zan, beraz, orren zaarra eta orren antxiñakoa. Baiña bitarte aretan aldakuntza aundiak izan ziran, antza. Eta lege batzuk alperreko egin eta oitura barriak agertu.

Erdi-Aroaren amaieran gagoz, egon be. Kondairaren aldi barri bat daukagu jaioten. Eta aro barri au etor dakigunean, erri-erakunde barriak sortuko dira Bizkaian. Aldaketa sakanak eta gora-beera aundikoak gaiñean daukaguz. Eta aurki etorriko diralakoaren itxurak dagoz. Orrexegaitik Foru Zaarra barriztatu bearra, garai aretako bizkaitarren eritxiz.

Aitaturiko 1526-garreneko jorraillaren bostgarrenean egindako Batzarre Nagusi aretan, Foruaren barriztate-lana burututeko, Batzorde bat izendatu eben, amabi gizonez osaturiko Batzordea. "Gizon eskolatu, jakitun eta barru garbikoak eta Bizkaiko Foru, usuario eta erri-eskubideetan aituak ziranak izendatu bear zirala", esan eben (Foru-liburua 9, orr.).

Batzartuta egozan guztien izenean "bear ainbateko aalmen osoa emon eutseen, eta erria ondo zaintzeko barriztatu egiela, bertoko auzibideak garbitzeko eta bizilagunen nasabide eta bakebiderako bear zan guztia idatzirik, alperrekoa eta bearrezkoa ez zana kendurik, erantsirik edo mozturik, eurak zelan eritxen eta alantxe" (Foru-liburua, 12 orr.). Eta ogei egunetan burutu egiela Forugintza guzti ori agindu eutseen...

Foru Zaarretik zer kendu eta Barrian zer erantsi zeaztu ebenean, Batzordeko gizon bi izendatu ebezan Foru-liburu barria idazteko... eta agindu zorrotz au emon eutsoen: Gernikan, Antxiñako Andra Mari eritxan elizan alkartu zeitezela, eta eliza aren barruan eurak barriztatu zituen lege zaar eta

barriez liburu barri bat egin egiela, legeok atalka banandurik eta lege bakotxaren adiera idazkera on eta garbiz azaldurik. Eta lagintza au burutu arte ezetariko eginkizunik ez egiela euren gain artu.

Foru Barria edo Barriztatu Batzordearen aurrean aurkeztu ebenean, guztiak ao batez esan eben: "Barriro egin zan Forua ondo egiña egoala, eta Bizkaiko Lege Berezi, Erri-eskubide, Foru eta oituren arabera idatzia izan zala" (Foru-liburua, 24 orr.).

Foru Barria 1527-garreneko jorraillaren zortzigarrenean onartu eban Valladolid-en Carlos Enperadoreak, eta irarteko baimena emon ere bai.

Foru Barria edo Barriztatu au onartu eben Erregeak onexek dira:

- 1575-garrenean II Felipek.
- 1602-garrenean 111 Felipek.
- 1621-garrenean IV Felipek.
- 1667 eta 1681-garrenean II Carlosek.
- 1702-garrenean V Felipek.
- 1751-garrenean VI Fernandok.
- 1760-garrenean III Carlosek.
- 1789-garrenean VII Fernandok.

Foru Barriztatu au oso-osorik indarrean egon zan 1839-garrenean II Isabelek emon eban legea arte. 1876-garrenean, barriz, Canovasek emon eban Legearen indarrez, guztiz galdutakoan.

1526-garrenean egin zan Foru Barria edo Barriztatu onetan ez datoz Bizkaiko erriaren gordetan eta betetan ebezan usuario eta oitura guztiak, José Lasa Apalategi jaunak dirauskunez, amaseigarren gizaldian eta gure egunetara arte iraun daben usuario eta oitura asko ez ebezan Foru Barrian ezarri, orduango legegilleen eritxiz, beiñenak eta garrantzizkoanek ziranak baiño.

## **BIZKAIKO FORU BARRIAREN ARGITARALDIAK**

- I - Burgosen, 1528-garren urtean.
- II - Medina del Campon, 1576-garren urtean.
- III - Bilbon, Huidibrok egiña, 1643-garrenean.
- IV - Bilbon, Zafrak egiña, 1704-garrenean.
- V - Bilbon, Eguzkizak egiña, 1762-garrenean.
- VI - Bilbon, Euzkizaren alargunak egiña, (urtetik ez dakigu).
- VII - Bilbon, Dalmasek egiña, 1865-garrenean.
- VIII - Bilbon, Biblioteca Vascongada de Fermín Herranek egiña, 1897-garrenean.
- IX - Bilbon, Bizkaiko Aldundiak egiña, 1898-garrenean.
- X - Bilbon, Bizkaiko Aldundiak egiña, 1977-garrenean.
- XI - Bilbon, José Estornés Lasak egiña, euskeraz eta gaztelera, 1981-garrenean.

**Pedro PUXANA**

# LITUANIA'TIK AITA LEONAS ZARENBA'REN ESKUTITZA

Egoameriketako Uruguai'en bizi nintzanean, nire lagun batek itandu eustan: nongoa zara zu? Eta ni Lituaniakoa nintzala entzun ebanean, erantzun eustan: ori ez da egia. Zu Euskalerrikoa zara. Zure abizena "Zarenba" euskalduna da.

Orrelako erantzun ziurra entzunda, neu ere zalantzan jarri nintzan. Eta, bear bada, neure aurretikoen artean euskaldunen bat aurkitzen ete zan jakin gurea sortu jatan. Andik lasterrera Euskaltzaindiari idazteko aukera etorri jatan, eta gero onango erantzuna artu neban: "Zarenba" abizenak ez eukala euskerarekin zer-ikusirik. Alan da be, nik euskal akademiari ba zala Lituanian "Bazkai" izeneko erritxo bat, adierazo neutsan.

Dana dala au da egia: ni Lituania'koa nazala, eta orain irurogeita bat urte an jaio nintzala. Nik an txikitan gudu aurretik jesulagunen ikastetxe batean ikasi neban...

1940. urtean Errusia'ko komunistak Lituanian sartu ziran, gure erriari askatasuna lapurturik... Eta jendeak "gorriak" zelangoak ziran jakinik, atzerrira bildurrez iges egin eban, Suezia'ra batez ere, baiña baita Ameriketa'raino ere...

Ni ere Erroma'ra teologia ikastera joan nintzan, eta 1948 urtean meza barria emon neban. Baina neure aberrira ezin itzuliz, Santiagoko gotzainak eskatuta Ego-ameriketa'ko Txilera joan nintzan.

Amairu urte luzeetan ez neban gure etxekoen barririk euki. Milaka lituaniar Siberia'ra erbesteratuak izan ziran. Eleizak itxita edo lantegi bihurtuta...

Stalin il zanean kontuz-kontuz geure etxekoei idazten asi nintzan, eta gure aita espetxean egon zala jakin neban, baina gure erriko batzuk bere alde eskatu ondoren, aske itzi eban...

Txile'n nengoala Jesusen Lagundian sartu nintzan, eta erderaz ere ikasi neban, baina asko kostata... Lituania'ko izkuntzan gauzen izenak ez dira maskulino-femeninoak, eta nik "la sol" edo "la monte" esaten neban... Ez da arritzekoa...

Nire nagusiak Uruguai'ra bialdu ninduen Takuarenbo'ko

ikastetxera, eta an erlijinoa eta geografia irakatsi nebazan. Gero Ipar Ameriketa'ra joan nintzan angolituaniar emigrantei laguntza emotera. Barriz ere beste izkuntza barri bat ikasi bear, baina lan onetan neure jatorriko izkuntzak asko lagundu eustan... Baina alan da be, oitura barriak eta aurpegi barriak... Emigranteak euren arazo bereziak daukiez. Txikago, Montreal eta Kleveland'en lituaniar emigranteekin lan egin neban.

Baiña mundu onetan ez da betikorik, eta politikan ere gauzak aldatu egiten dira, eta stalin il zanean gauzak ohera egin eban... Eta Lituania izan da Errusia'tik askatu dan leengo lurraldea... Baiña nork esango deusku guri Txetxenia'n gertatu dana, ez dala Lituania'n jazoko?

Sobieten azpian gizaldi erdian ito-larriz egonak, gazteen artean batez ere, eragin andia egin dau... Ainbeste urtetan eskoletan ez dabe entzun besterik, kristiñauak fanatikoak dirala, atzerakoiak, ez-jankinak eta abar... Jaungoikorik ez dala, ezta geroko bizitzarik ere... Eta oiñarri oneek kendu ezkerro, zergaitik eta zertarako izan zintzoa eta zuzena?

Munduko guda asi aurretik Lituania'ko giroa moral alde-rik naiko ona bazan ere, gaur burua-iltzea, lapurretan egitea, abortoa, mozkorkeria... Lituania'n nagusi dira. Au da jaungokobako filosofiaren ondoren ustela...

Orain ni neure aberrian nago, baiña au ez da nik itzi neban Lituania. Gosea eta urritasuna alde batera itzirik, gaurko gaztedia ezerean itxaropen barik bizi da. Ez dau pozik biziteko ziorik aurkitzen...

Gure leengo eleizaren kanpoko ormak bakarrik gelditu dira, barrua dana erreza izan da... Liburutegia ere dana ondantua... Dana barriz egin bear da. Lana ikaragarria da, eta gure indarrak urriak.

**Leonas P. Zarenba. S.J.**

(Aita Iñaki Goikoetxeak bialduta)

## URRENGO "ZER" 200<sup>a</sup>

Egunerik egunera, illerik illera eta urterik urtera, guztiok alkartuta lan egiñez, 200n. zenbakira elduko da urrengo illean gure aldizkari au.

Lan aundi bat egin dogu. Bizkai'ko euskerea zor jakon lekuan ipinten alegindu gara.

Baiña zer lortu dogu? Eztabaidak eta sarritan iraiñak baiño ez?

Gitxienez bizkaiera maite dogun asko alkartzea bai lortu dogu. Eta asko gara, zaratatsuak izan ez arren.

Euskereak gaur dauzan naste-borraste askoren artean

argi bat iziotutea be lortu dogu. Iñok ez dau ukatzen errazoa daukagunik, baiña askok bai gure jokabideari lagundu bearrean, indartsuagoak diran beste bide batzuk artzen dabez, bai Bizkai'ko euskerea alboratuz eta bai Bizkai'ko euskereak ez daukan eta bear be ez dauan "H" a onartzu.


"ZER" eta beronean 200 zenbakiak dira gure gurariaren eta elburuen lekuko. Egunen baten konturatuko dira okerreko bidea artu ebela. Ez ete da beranduegi izango?

**ZER**

## EUSKALDUN BARRIENTZAT



Marrazki onetan 7 erru dagoz eginda, ondo begiratzen badozu aurkituko dozuz.



Zelan elduko da gure gizona bere pianora? Lagundu mesedez!



Nok idatzi eban "Tres sombreros de copa", Gala, Casona, Mihura ala Lorca?

# EUSKER1 ZALE~K

Colón de Larreategi, 14 - 2.ª dcha.  
48001 BILBAO



## *Betidanik.*

**A** **BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**

Itzau begiak une batez eta  
begiratu zeure inguruari.  
Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten  
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat  
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?  
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.  
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin  
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.  
Urbiltasuna, begikotasuna,  
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so  
antziñako sukursal orren argazkiari.  
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein  
bulego ta sukursalekin.  
Ez dira ain ezbardiñak.  
Azkenean, garrantzitsuenak  
bere orretan diraelako.  
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta ori  
ondo dakigu BBK'kook.  
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.  
Baiña leengo berberak gara.  
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz  
eta geurez onurak itzultzeko.